Europar Batasunean garraiatu ezin diren animaliak garraiatzea 16/10/17

Europako Araudiaren arabera, debekatuta dago garraiatu ezin diren animaliak garraiatzea, baina, hala ere, egunero sartzen dira Europar Batasuneko hiltegietan garraiatu behar ez ziren animalia zaurituak.

Animalien zaintzaileak eta garraiolariak dira horren erantzule, lehenik eta behin, eta agintari eskudunek legea betetzen dela bermatu behar dute. Europako Batzordeak gai honi buruzko txosten bat argitaratu du.

Txostenak estatu kideetan arlo honetan lortutako datuak eta gertaerak aztertzen ditu, eta erakusten du zein sistema nazional dauden ziurtatzeko etxaldeetatik hiltegietara garraiatu daitezkeen animaliak baino ez direla garraiatzen. Txostenaren arabera, horrelakoak ez gertatzeko, garaiz identifikatu behar dira mugitu ezin diren animaliak, eta alternatiba eraginkorrak ezarri behar dira.

Txostenak, halaber, egokiak diren zenbait jarduera ematen ditu eta tresna batzuk deskribatzen ditu kasu horiek etxaldean bertan identifikatzeko. Era berean, adierazten da lotuta daudela, batetik, etxaldean bertan hiltzeko sistemak izatea eta horiek erraz lortzea, eta, bestetik, garraiatu ezin diren animalia gutxiago garraiatu. Bestalde, txostenean esaten da agintari nazionalek mekanismoak dituztela hiltegietan garraiatu behar ez ziren animaliak zein diren jakiteko.

Azkenik, azpimarratzen da administrazioek eskumenetan dituzten “mugek” eta sailen arteko komunikazio faltak eragiten dutela askotan araudia behar bezala ez aplikatzea.

EBren txostena- Animalien ongizatea. Garraiatu ezin diren animalien garraioa

---

Eutanasia eta zorabialdia animalietan 15/09/30

Galiziako Xuntak gida bat egin du **animalien eutanasiari eta zorabialdiari buruz, ahal den neurrian, animalien sufrimendua saihestearren.**

Eutanasiak "**minik gabeko heriotza**" esan nahi du, eta gida honetan uste da minik gabeko heriotzarako baldintzak honako hauek direla: berehala eragitea konorterik eza, eta, jarraian, heriotzara arte mantentzen den arnasa- edo bihotz-gelditzea.

Eutanasia egoera anitzetan aplikatzen da, baita arrazoi humanitarioak, osasun-arrazoiak eta hainbat justifikazio direla-eta **giza kontsumorako edo ikerketarako animaliak** hiltzean ere.

Gidak zenbait kapitulu ditu, eta, besteak beste, honako gai hauek jorratzen ditu:

- **Animaliaren heriotza eragiten duten mekanismoak.**

- **Eutanasia-metodoa hautatzea erabakitzen duten faktoreak.**
- **Animalien eutanasiari buruzko legeak.**
- **Animaliek heriotza eragiteko agenteak.**
- **Eutanasia-metodoak.**

Azken kapitulu horri (**eutanasia-mekanismoak**) dagokionez, gidak azaltzen du bi metodo-mota handi daudela eutanasia eragiteko hainbat animalia espezieren artean:

1. Metodo **fisikoak (tiroa buruan, elektrokuzioa, lepoa haustea, kommozioa...):** gizentzeko animaliekin erabiltzen dira maiz hiltegietan, baita gaixotasunak hedatzea saihesteko ere, animaliak premiaz hiltzen direnean; hortaz, dagozkien legeetan jasota daude.Honako metodo hauek dira: tiroak (bala edo jaurtigai zilindrikoa), elektrokuzioa, garondoa lokatzea, burua moztea edo kommozioa.
2. **Metodo kimikoak (barbiturikoak, karbono-dioxidoa...):**

- Konposatu injektagarriak (**zainbarneko injekzioa, batik bat: barbiturikoak, kloral-hidratoa eta T-61**).
- Konposatu lurrunkorrak (**anestesikoak, CO, CO2**).

Bi kasuotan, animalia hiltzeko erabil daitekeen teknika faktore anitzen araberakoa izango da, besteak beste: animalia espeziea eta prozesuaren xedea. Adibidez, gizakientzako elikagaietarako animalia batek ezingo ditu hartu maskota batek edo zientzia-ikerketa konplexu bateko animalia batek hartzen dituzten agente kimikoa berberak.

Gida laguntza-tresna interesgarria da animalien heriotzan parte hartzen duten profesionalentzat, animalien eutanasia zuzen eta eraginkor aplikatzeko.

EUTANASIA ETA ZORABIALDIA ANIMALIETAN – Galiziako Xunta

Prezi: ONGIZATE BETEKIZUNAK ANIMALIAK GARRAIATZEAN 15/08/19

Europako legeriak jarduera ekonomiko baten ondorioz **animaliak garraiatzean bete beharreko animalien ongizateko betekizunak** ezartzen ditu.

Legeria horrek ezartzen ditu, esate baterako, **ibilgailuek** eta **garraiolariek** bete beharreko baldintzak, **dentsitate-betebeharrak**, **bidaiaren iraupena**, beharrezko **dokumentazio**a eta abar.

Betekizun horien guztien berri erraz jakin ahal izateko, ELIKAk, Eusko Jaurlaritzarekin, foru-aldundiekin eta Euskadiko sektoreko eragileekin lankidetzan, informazio hori guztia emango dizun **material grafiko hau** sortu du. Ibil ezazu gurekin!

- Prezi: **ANIMALIEN ONGIZATEA GARRAIOAN**

Esne-behien ustiategi txikien ongizatea 15/06/23

Europako biztanleek gero eta gehiago eskatzen dituzte tokian tokiko ustiategietan ekoitzitako elikagaiak, eta, era berean, ustiategi horietan animalien ongizatea bermatzeko ere eskatzen dute. Hori aintzat hartuta, Europako Batzordeak (EB), beste hainbat ekimenekin batera, **esne-behien ustiategi txikietan animaliak nola zaintzen diren ikertzea erabaki du.**

Horretarako, EFSAk ikerketa bat egin du. Ikerketa horren emaitzak "**Ustiapen txikietako esne-behien ongizatearen ebaluazioari buruzko txosten zientifikoa**" – EFSA

Ustiapen horien gehienezko neurria 75 behitan ezarri zen (txostenaren unean zeudenak, hala esnea ematen nola esnerik gabe). Eskala txikiko ustiategiak zein ziren erabakitzeko hainbat irizpide erabili ziren; besteak beste tokiko baliabideak erabiltzea, ziurtagiri-sistema batean izena ematea, langileak kontratatzea edo ez kontratatzea, sargaiak erabiltzea (esaterako, pentsua) edo tokiko arrazak erabiltzea.

Datuak biltzeko, inkesta bat egin zen. Inkesta horretan lau herrialde hauetako 124 abeltegik hartu zuten parte: Austria, Frantzia, Italia eta Espainia.

Hona hemen ondoriorik adierazgarrienak:

1. Gaixotasunek **abereen ongizatean dituzten ondorioak ez daude behi-taldearen tamainaren edo ekoizpen-sistemaren mende**.
2. **Abeltegietan agertzen diren gaixotasunen intzidentziaren eta prebalentziaren aldakortasuna altua da**.
3. Frogatuta dago **errendimendu handia duten behiek aukera gehiago dituztela gaixotasun batzuk harrapatzeko; esaterako, zetosia**.
4. **Kudeaketa ona ezinbestekoa da behien beharrizanak asetzeko**, sistema- edo ekoizpen-mota edozein izanda ere.
5. **Gutxi idatzi da ustiategi txikietan dauden gaixotasunak agertzeko arrisku-faktoreei** eta gaixotasun horiek abereen ongizatean dituzten ondorioei buruz.
6. **Abeltegi txikietan, abereek oztopo gutxiago dituzte bazkalekuetara joateko**; hori dela eta, gaixotasun batzuen intzidentzia (esaterako, herrentasunarena) txikiagoa da. Alabaina, bazkalekuetara joateko erraztasunak beste gaixotasun batzuen intzidentzia handitu dezake; esaterako gaitz metabolikoen intzidentzia.
7. **Abeltegi txikietan laguntza tekniko gutxiago eta albaitariaren laguntza gutxiago izaten dute**.

Animalien ongizateari buruzko informazio gehiago – EFSA

FVOren ikuskatzea: Espainiako hiltegiak 15/05/04

Elikagai eta Albaitaritza Bulegoak **(FVO) ikuskatzea egin zuen Espainian joan den apirilaren 1etik 10era**, **hiltegietan animalien ongizatea bermatzen duten kontrol ofizialen eraginkortasuna egiaztatzeko**. Zehazki, hauek egiaztatu zituen:

- **Animaliei ez zaiela inolako minik edo sufrimendurik eragiten**, 1099/2009 zenbakiko Araudiarekin (EE) bat eginez.
- **Animalia hiltzeko unean ongizatea bermatzeko kontrol ofizialak**, 882/2004 zenbakiko Araudiaren (EE) arabera egindakoak, egokiak direla 1099/2009 zenbakiko Araudia (EE) **behar bezala ezartzen dela** bermatzeko.
- **Erakunde eskudunek** 1099/2009 zenbakiko Araudian (EE) ezarritako baldintza bereziak betetzen dituztela (besteak beste, **jardunbide onei, babes zientifikoari eta gaitasun-agiriei buruzko arauak**) eta baldintza horiek modu eraginkorrean ezartzen direla.

Horiez gain, hauek ere aztertu ziren:

- Haragi-ekoizpenerako hazitako **oilaskoen ongizatearen baldintza kaskarrak direlako zantzuak ote dauden hiltegietan**.
- Batetik, **garraia daitezkeen animaliak baino ez direla bidaltzen hiltegietar**a; bestetik, horretarako 883/2004 Araudian (EE) jasotako prozedurak ezartzen ote diren. Prozedura horiek ahalbidetu egiten dute animalien **"premiazko hilketa" ustiategietan** eta hiltegietara kanalak bidaltzea.

Ikuskaritza **Asturias**ko eta **Galizia**ko **hegazti-hiltegietan nahiz haragiki gorrien hiltegietan** egin zen. Hona hemen ikuskaritzaren azken txostenean jasotako ondorio nagusiak:

1. Gabeziak daude **hiltegietako langileen prestakuntza**ri eta gaitasun-agiriei dagokienez.
2. Gabeziak daude **behiei eusteko boxetan**.
3. Ikuskatutako bi **autonomia-erkidegoek oraintsu garatu dituzte jakinarazpen-sistema onak**, eta aktiboki lan egiten dute hiltegietan animalien ongizatearen kontrola ezartzen.
4. **Hegaztien hiltegiko erakunde eskudunak ez zuen kontrol nahikorik egiten** animalien zorabialdian eta hilketaren unean.
5. **Arazo larria da hiltegietara eraman ezin daitezkeen behien garraioa**. Badaude autonomia-erkidegoetan araua betearazteko neurriak; alabaina, zehapenak ez dira disuasio-neurriak, eta ez dirudi laster konponduko denik aspaldiko arazo hori.
6. Autonomia-erkidego gehienetan **ez da kontrolik egiten, kortako hegaztien hiltegietan animalia-ongizateari buruzko *post morten* adierazle berezien erregistroaren gainean.**

Ikuskaritzaren azken txostena

Animalien garraioa hobetzeko Europako proiektua 15/03/27

Urtero, batez beste, elikagaietarako 365 milioi animalia garraiatzen dira Europako Batasunaren (EB) barruan; horietatik 6 milioi inguru bidaia luzeetan garraiatzen dira (8 ordutik gorakoetan).

Garraio-aldian animalien ongizatea bermatzeko, zenbait neurri hartzen dira. **Nahitaezkoa da**, besteak beste, **Kontrol Guneak egotea (lehen "geldialdi-gune" deitzen zitzaien); horietan, animaliek atseden hartu behar dute bidaiaren zati bat egin ostean,** eta elikagaiak eta ura eman behar zaizkie. Erakunde eskudunek baimendu behar dituzte gune horiek; halaber, guneok legeek ezarritako baldintza jakin batzuk bete behar dituzte.

Ikusi da kontrol-guneek zenbaitetan ez dituztela baldintza horiek betetzen. Hori dela eta, **Europako Batzordeak (EB) azterlan bat egin du**, batetik, EBn gaur egungo egoera-mapa bat edukitzeko eta, bestetik, estrategiak garatzeko, **gune horien baldintzak hobetu eta eta garraiolariek hobeto erabil ditzaten**. Horrez gain, instalazio horiei kalitate-egiaztagiri bat ematea ere aztertzen ari dira.

Honako hauek dira azterlanaren ondorio aipagarrienak:

Iraupen luzeko bidaien ibilbideak, animalia-espezien arabera

- **Behiak Irlandatik eta Europa ekialdeko herrialdeetatik Italiara, Espainiara eta Herbehereetara garraiatzen dira**.
- **Zaldiak, nagusiki, Poloniatik, Errumaniatik eta Hungariatik Italiara eta Frantziara** garraiatzen dira.
- **Ardi gehienak Europa ekialdetik hego-mendebaldera** garraiatzen dira. Halaber, Espainiatik Italiara eta Greziara ere eramaten dira.
- **Txerriak, nagusiki, Europa ipar-hegoaldetik Espainiara, Italiara, Errumaniara eta Errusiara** garraiatzen dira.
- Urte batetik bestera aldatu egiten da animalia-kopurua, baina **joan-etorri nagusien ibilbideak berberak izan ohi dira.**

Kontrol-guneen erabilera eta ezaugarriak

- **4 kontrol-gunek** (Frantziako bik, Alemaniako batek eta Espainiako batek) **okupazio handia izan ohi dute** (edukiera osoaren erabileraren > % 60) gutxienez urtean 8 hilabetez.
- **Bisitarien erdiak-edo ohikoak izaten dira, eta beste erdiak, berriz, noizean behingoak**.
- Ez dago informaziorik kontrol-guneetako egonaldiaren inguruko arauak betetzen ez dituzten garraio-enpresen kopuruari buruz.
- **Kontrol-guneetako asko duela gutxi ezarri eta onetsi dira** (% 40 2005az geroztik eta % 30 2000-2004 artean).
- **57 kontrol-guneetatik 35 (% 61) onetsita daude**, hala kontrol-gune gisa nola kontzentrazio-zentro gisa.
- **Gehienak garraio-ibilbide nagusietatik gertu daude**. Batez besteko distantzia 10 kilometro ingurukoa da.
- **% 19** (11 kontrol-gune) **espezie edo animalia-kategoria jakin baterako espezializatuta dago**.

Azterlanean EBko kontrol-gune guztietatik 57k parte hartu dute. Gaur egun, 14 herrialdetan **onartutako 157 kontrol-gune daude;** hala ere, gutxienez 44k ez dihardute kontrol-gune gisa, edo itxita daude. Espainian, erregistraturiko 7 kontrol-guneetatik 3k bakarrik dihardute kontrol-gune gisa; gainerakoetatik, bi itxi egin dituzte, eta beste biek kontzentrazio-zentro gisa dihardute.

Azken txostena: Kontrol-guneei egiaztagiria emateko aukeraren ebaluazioa – Europako Batzordea

---

INFOGRAFIA: animalien ongizatearena abere-ustiategietan 14/12/22

ELIKAk beste infografia bat egin du eta bertan, oso modu grafikoan kontsultatu ahal izango duzu, **animalien ongizateari dagokionez, abeltzaintza-ustiategietan zein lege-betekizun bete behar den**.

Animalien ongizatearen arloan, Europako legediak xedatzen du giza kontsumorako elikagaietarako animalia espezie bakoitzari hazkuntza-baldintza batzuk ezarri behar zaizkiola. Halaber, azken urteotan araudi berriak jarri dira indarrean hainbat espezierentzat (besteak beste, txerriak eta hegaztiak), batik bat instalazioei eta hazkuntza-baldintzei dagokienez.

Aldi berean, araudi horrek xedatzen du **oilaskoen eta txerrien zaintzaileek arloko prestakuntza jaso behar dutela, gutxienez 20 orduz.** Lanabes hori prestakuntza-ekintzetarako lagungarri izan daiteke.

INFOGRAFIA

Esne-behien ustiategi txikien ongizatea aztertzen du EFSAk 14/12/15

Galdeketa Europar Batzordeak (EB) EFSAri egindako eskaeraren ondorioz sortu da; zehazki, **esne-behien ustiategi txikien definizioa eta kategorizazioa berrikusteko eskatu dio**, ustiategi txikietako esne-behien ongizateari buruzko zientzia-irizpen bat egin eta argitaratzeko. 2015ean argitaratuko da.

Orain arte, horri buruz egindako lana **EFSAren AHAW Panelaren agiri bat** da, besteak beste, hauek jasotzen dituena:

1. Lan-taldeko kideek EBren eskaeraz egindako interpretazioa;
2. Europako behi-biztanleriaren ikuspegi orokorra;
3. Herrialdeetako esne-behien ustiategien egitura eta tamaina.
4. "**Ustiategi txikia**" edo "eskala txikiko abeletxea" definitzen duten kontzeptuak: **75 behiko**

tamaina; zenbait **artzaintza-sistema**; **langileen % 80 baino gehiago familiakoa** izatea; **tokiko arrazak**; **ziurtatze-sistema** (ekoizpen ekologikoa, Jatorri Izendapen Babestua, Adierazpen Geografiko Babestua, Espezialitate Tradizional Bermatua).

Taldeek zein norbanakoek parte har dezakete. Proposamenak igortzeko epea **2015eko urtarrilaren 30ean amaituko da**.

Galdeketa
Gaiari buruzko informazio gehiago – EFSA

EFSAk aztertu egin du txerrien buztan-ebakitzea 14/06/20

EFSAk iritzi bat argitaratu du, txerrien buztanaren anputazioari buruz. Anputazioa prozedura bat da, txerriek elkarren buztanei kosk egiteko arriskua murrizteko; izan ere, hori da espezie horren hazkuntza modernoaren arazo nagusietako bat.

Jokabide horrek zenbait kausa izan ditzake, hala nola, txerriek euren jarrera-beharrizanak asebetetzeko behar dituzten material manipulagarririk ez egotea: lastoa, belar lehorra, siloratzea, ongarria eta turba. Material manipulagarrien beharrizan hori aldatu egin daiteke, txerri-motaren arabera.

EFSAren iritzian **identifikatu egiten dira kaudofagia eragiten duten arrisku-faktoreen**, horrek animalien ongizatean dituen ondorioen eta ongizate-adierazleen arteko interakzioak.

Txostenean, besteak beste, **ondorio** hauek jasotzen dira:

1. **Txerriek material manipulagarriak behar dituzte**, hainbat jarrera-beharrizan asebetetzeko. Horiek txerri-motaren arabera alda daitezke. Bada, beharrizan horiek asebetetzen ez direnean, ongizate-arazoak sortzen dira, eta horietako bat da baztertutako eta loditzeko txerrikumeen arteko kaudofagia.
2. **Material manipulagarri batzuek, orobat, ondorio kaltegarriak izan ditzakete** txerrien ongizatearen beste alderdi batzuetan. Hala ere, ondorio kaltegarri horiek ez dira egoki aztertu.
3. **Animalia arazotsua egoki identifikatzea eta baztertzea funtsezko neurria da**, buztana moztea saihesteko. Bestalde, ingurumen- eta maneiatze-faktoreak ere kontrolatu behar dira.
4. ***Welfare Quality*® nazioarteko proiektuak emandako datuen azterketan ez zen eman material manipulagarri ezberdinak darabiltzaten abeletxeetako animalien jarrera bereizteko emaitzarik**. Proiektua ez zen diseinatu buztanei kosk egiteko arrisku-faktoreak ebaluatzeko; beraz, azterketa horri dagokionez, mugak ditu.
5. Hornitutako **material manipulagarriak eragina du azaleko lesio larrien prebalentzian**.

Gaur egun dakigunaren arabera, kaudofagian ageri diren arrisku-faktore ezberdinen garrantzia erlatiboa eta faktore horien arteko interakzioa ez dira zientifikoki zenbatetsi. Horretarako, azterketa gehiago egin behar dira.

EFSAren iritzia

Katalunian animalien ongizatearen inguruan eginiko kontrol ofizialaren emaitzak 14/03/27

Kataluniako Generalitateko Abeltzaintza Antolamendurako Zerbitzuak argitaratu egin ditu abeltzaintza ustiategietan **2012. urtean animalien ongizatearen inguruan eginiko kontrol ofizialen** emaitzak.

Oro har, **2008. urtetik aurrera, % 77,5etik % 89ra** areagotu da Katalunian animalien ongizateari buruz eginiko kontrolen adostasun tasa.

Kontrolak **ustiategien % 5ean** gauzatu dira, eta Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza, Elikadura eta Inguru Naturala Sailak eskualdeetan dituen bulegoetako albaitari ofizialek egin dituzte.

Alderdi hauek aztertzen dira ikuskaritza-bisitetan: **ustiategiko erregistro-liburua**, **animalien identifikazioa** eta animaliak **zein baldintzatan hazten diren**.

Zenbait kasutan (adibidez, haragitarako **hegaztien eta txerrien kasuan**), animalien zaintzaileek **animalien ongizateari buruz jaso duten prestakuntza** ere egiaztatzen da, espezie horietarako derrigorrezkoa baita. Azkenik, **albaitari ofiziala ustiategian badago animaliak garraiorako kargatzen edo deskargatzen** direnean, eragiketa hori zein baldintzatan egiten den ere ikuskatzen da.

Lortutako emaitzak

2012. urtean hainbat espezietarako lortu ziren emaitzak

Espeziea	Ikuskaritzak	Bat ez etortzeak	Adostasunen %
Txerriak	475	68	85.68
Zekorrak	320	26	91.88
Behiak	0	0	100
Ardiak	171	10	94.15
Ahuntzak	139	11	92.09
Ekidoak	170	15	91.18
Oiloak	38	8	78.95
Oilaskoak	109	7	93.58

Oilo erruleen ustiategiak 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartu ziren animalia ongizateari buruzko arau berrietara egokitzeari dagokionez, hauek dira kontrolen ondorio nagusiak:

1. 2012. urtearen hasieran, Katalunian **92 ustiategi zeuden erregistratuta** (350 oilo baino gehiago zituzten erroldan, horiei aplikatu baitzitzaien ongizatearen inguruko araudia).
2. Urtearen amaieran, **66 ustiategi zeuden araudira egokituta**.
3. **14 ustiategi gaitasunik gabe** utzi zituzten araudia ez betetzeagatik.
4. **10 ustiategik baj**a eman zuten edo gaitasunik gabe geratu jarduera faltagatik.
5. **2 ustiategik hazteko era aldatu** zuten: kaiolan beharrean, lurzoruan.

Emaitza hauek eta beste batzuk ere Kataluniako Gobernuak egindako txostenan aurki daitezke:

- Emaitzen txostena